



❖ HITZALDIA

Angel Rekalde, gaur Biterin

Hernani Errotzen taldeak antolatuta, hitzaldia emango du gaur, Angel Rekalde historialariak, 19:00etan, Biterin. *Gazteluak, Nafarroaren defentsa-sistema* izenburua du hitzaldiak. ||

❖ KABALGATA

Errege kabalgatako jantziak, Biterin

Errege kabalgatako jantziak Biterin jaso ahal izango dira gaur, 18:00etatik aurrera. Umeen jantziak dira, laguntzaile gisan joateko. ||

❖ UR MIA

Ereñotzun jokatu da ostiralean, Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa

Urtero jokutzen da Euskal Herriko mus txapelketa, eta herriz herri kanporaketak izaten dira. Ereñotzun ere urtero jokutzen da kanporaketa bat, eta ostiral honetan ere jokatu da, Ur Mia elkartearen, 22:30etatik aurrera. Izenematea momentuan egingo da, 20 euroan. ||

❖ ITURRITXO

Haur txokoa, gaur eta bihar, Iturritxo auzo elkartearen

Iturritxo auzo elkarteak jakinarazi duenez, haurrentzako tailerrak egingo dituzte gaur eta bihar, 10:30etatik 13:00era. Kalendarioak egingo dituzte eta margotzen ere ariko dira. Auzo elkartearen lokaletan egingo dituzte lan horiek. ||

❖ KIROLDEGIA

Kiroldegia itxita, asteburuan

Gabonak direla eta, udala itxita egongo da datorren asteburuan: abenduak 31 eta urtarrilak 1. ||

EGUBERRI EKITALDIAK

Musika eskolako abesbatza, txistulariak, pianistak eta biolinak, gaur

● Horrez gain, Portu auzoan gabonetako hiru ekitaldi dituzte datozen egunetan; gaur, tailerra, *lehengizonari* buruzkoa, 17:00etan. ● Ohitura Zaharrak abesbatzak, erronda egingo du urte zaharretan.

MUSIKA Eskolako abesbatzak eta txistulariek kontzertua emango dute gaur, pianistek eta biolinistek lagunduta. Eguberri kontzertua dute, eta 10 kanta eskainiko dituzte Milagrosan, 19:00etatik aurrera: *Eguberri zortzikoa*,

Eguberriko 5.alborada, Christmas Carols, Gaudete, Erregeak datoz, Cantemos a María, Horra Mari Domingi, Haurtxo maite, Trakatan trakatan, Oi hau gauaren, eta Gabonetako afari on bat. Zuzendariak: Iñaki Eguren eta Garbiñe Orbeagozo.

Portu auzoan, tailerrak Eguberriak ospatzen ari dira Portu auzoan ere, eta gaur tailerrak dituzte, 17:00etan, auzo elkartearen lokalean: *Lehengizonaren* tailerrean ariko dira, orduko ehiza, su egitea eta pinturari buruz.

Urte zaharretako erronda, kalez kale Abenduaren 31n, urte zaharra agurtu eta berriari ongietorria ematen, Ohitura Zaharrak abesbatza ibiliko da Kaxkoan, bertsolariek lagunduta. 17:15etan Plazan. ||

PELIKULA GRABAZIOA HERNANIN

Extrak behar dituzte gaur Hernanin, 'Itzuli behar denean, zer?' pelikula grabatzeko


Hernaniko Plazan grabatuko dute eszena bat, eta herritarrei dei egin diete azaltzeko, 12:00etan. Oartzunen grabatzen ari dira pelikula poliziako hau.

PERSEKUZIO bat grabatuko dute gaur Gudariaren plazan, eta eszena horretarako jendea behar dute, Kronikari jakinarazi diotenez. Jendeak egon egin behar du, besterik gabe, eta kale jantzi arruntean jantzita egon behar du. Iban Garate da aktore nagusia, eta Kale Nagusian gora etorriko da korrika, eta arkupetatik pasako da; Portalez kanpon zai izango du kotxe bat, han sartu eta ospa egiteko.

Joxe Ramon Soroizek zuzentzen duen lehenabiziko pelikula da *Itzuli behar denean, zer?* izenekoak. Poliziakoa da, eta Oartzunen grabatzen ari dira. Arduradunek Kronikari jakinarazi diotenez, «eszena jendetsu bat nahi dugu, eta pentsatu dugu, Oartzunen baino jende gehiago bilduko dela Hernanin».



Joxe Ramon Soroiz, zuzendaria.



Iban Garate, aktorea.

Adin guztietako jendea Herriko plaza bateko normaltasuna nahi dute eszena horretan. Horregatik, era eta adin guztietako jendeari dei egin diote Gudariaren plazara azaltzeko. «Berez eszena azkarra da, baina errepikapen bat baino gehiago egin be-

harko ditugu, eta horregatik, 30 minutu inguru iraungo ditu grabazioak».

15 euro, bakoitzari Ez da diru asko izango, baina bakoitzari 30 euro emango zaizkio. «Plaza betetzen bada, daukagun dirua zatitu

egin beharko dugu, hori bai; gainontzean, 15 bat euro izango dira bakoitzarentzat».

Pelikula amerikar ikutua Joxe Ramon Soroizek lehenabiziko aldiz zuzendu du pantaila haundirako pelikula bat. Poliziakoa da, eta pelikula amerikarren kutsua izango du, baina euskal estiloarekin egingo da.

Hernani, gero eta maiteago zinegileentzat Pelikula asko ari dira grabatzen Hernanin, azken urteetan. Ezagunena, joan den urtean grabatu zutena, Zaharren Egoitza berriaren, *Urteberri on Amona* pelikularako. Horrez gain, *Vaya Semanitakoak* ere sarritan izan dira Hernanin, eta baita *Finlandia*-koak ere, besteak beste. ||

IXTASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 653 74 10 97
20120 Hernani

Allianz
ASEGURUAK
bizitza -
istripuak -
ibilgailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak -
agustin ezponda irizar
agentzia
Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

Vanesa eta Miguelo
Harategia
eta aurrez egindako janaria
ADI!!!
Ordu bete baino lehenago eskatu
OSTIRAL-LARUNBATA-IGANDEA
SUPER MENUA
Asteazkena
JAGINGO
beteak
8,33 € / kiloa
Begi gabeko
angulez beteriko
BOKEROIAK
13,41 € / kiloa
Larramendi, 17 - HERNANI Enkarguetarako: 943 55 03 32

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622
 ● **Autobusak**: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa**: 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103
 ● **FARMAZIAK** ● **Eguzte**: **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941 ● **Gauez**: **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA
GAUR Zeroreko tenperaturekin hasiko dugu eguna. Gerora, zerua oskarbi egongo da. Azken orduetarako, fronte hotz batek aldaketak ekarriko ditu. Min.2° / Max.14°
BIHAR Zerua lainotuta egongo da eta euria egingo du. Tenperaturak behera egingo duenez, elurraren maila ere jaitsi eta 700-800 m inguruan kokatuko da. Min.7° / Max.10°
 (euskaime)

HAMAİKABAT - PRENTSA OHARRA

«Igartzagainako tunelari buruzko azalpenak tamalgarriak dira»

Iñaki Arratibel: «obrak bukatu eta gero mugitzea beranduegi da».

URUMEAKO autobidean obratan ari dira aspaldi, eta Portuko Igartzagaina parean tunela kendu dezaketela dio Hamaikabat alderdiak. Udal Gobernu Taldeak horren berri ofizialik ez duela jaso adierazi zuen joan den astean

Kronikan, eta Hamaikabatek salatu egin du erantzun hori. «Igartzagainako tunela kendu eta gero mugitzea has-tea beranduegi izango da. Portu auzoan kezkatuta daude, lehengo bide zaharra ere kendu dezaketelako, eta

subestazio elektrikora igotzeko beste bide bat ireki dezaketelako. Udal Gobernu Taldeak ardura zuzena izango du, hori gertatzen bada, orain mugitu behar duelako. Azalpenak eman behar ditu Luis Intxauspek».

OSIÑAGA AUZOA



Mus Txapelketako sarituak, arduradunekin batera, Itxasburu sagardotegian.

Alvarez eta Estefano txapeldun, musean

Gabonetako saskia berriz, Ibai Ondo etxera joan da.

XI Alvarez eta Jon Kar Estefano dira Osiñaga auzo elkarteko mus txapeldunak. Bigarren geratu zirenak, finalistak baita ere, Jesus Lopez de Munain eta Jose Luis Medrano. Hirugarren, Jose Manuel Saldise eta Kepa Saldise; laugarren, Joxe Angel Etxeberria eta Xabi Etxeberria. Itxasburu sagardotegian jokatu ziren finalak.

Horrez gain, Gabonetako saskia ere zozketatu dute, eta Ibai Ondo etxera joan da, Antonio Arruti eta Nieves Manterola dira sarituak. ||



Antonio Arrutik eta Nieves Manterolak irabazi dute saskia.

◆ PELOTA - HERNANIKO BENJAMINEN I. TOPAKETA 69 partidu jokatu dituzte bihar goizean, pelotari txikienek, txapelketa 'azkar' batean

Pelotari benjaminak, txikiak, bihar bilduko dira Hernaniko kiroldegian, eta txapelketa azkarra jokatu dute. 69 partidu jokatu dituzte dena, eta 28 pelotari ari dira, jo eta su. Pelotazaleentzat, aukera paregabea, Hernaniko pelota-etorkizuna zein den jakiteko. Bihar, goizeko 10:00etan hasita. ||

◆ IPUIN ORDUA

Ipuinak, Lur Kortak kontatuta

Ipuinak entzuteko plazerra izango dute gaur, Udal Liburutegira inguratzen diren haurrek. Bi ipuin-saio izango dira, eta Lur Korta da kontalaria: 3-4 urtekoentzat, 11:00etan; 5-7 urtekoentzat, 11:30etan. Gurasoei jakinarazi diete, puntualak izateko. ||

◆ ZINEA

Haurrentzako zinea gaur

Disneyren pelikula bat botako dute gaur Biterin, 17:00etatik aurrera, gaztetxoentzat: *Kika Superbruja. Viaje a Mandolan*. ||

◆ ARTE ERAKUSKETA

Herriko artisten lanak ikusgai, bihar arte

Hernaniko zenbait artistak erakusketa jarria dauka Biterin, abendu hasieratik, eta bihar arte egongo dira ikusgai. Talde honek *Triangelu* dauka izena eta artista hauek daude bertan: Peio Goello, Pelex eta Iker Valle. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

IGNACIO ETXANIZ LANDA

*Zure oroimena
beti izango da gure
bihotzetan.*

PEPI ETA BERE FAMILIA
Hernanin, 2011ko abenduaren 28an

◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

Pixua alokatzen dut, Kardaberaz kalean. 650 euro, kontratuarekin. Deitu: 653 714 946

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazioa, eguberrikako prezio bereziak 2X1. Beherapenak aurpegi tratamenduetan. Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. **Atzietza 2, behea**. Tel. 943 55 32 78.

Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)



HIRUGARREN SASKIAREN ZENBAKI IRABAZLEA 2.556

1. **MARI FE ARRANDEGIA**: langostino kg 1
2. **KAIXO**: emakume poltsa eta gizonezko kartera
3. **ZINTZARRI TABERNA**: Marques de Monistrol, cava kaja
4. **VALEN**: Ume arropa
5. **ALKORTA HARATEGIA**: paletilla (ezkurrez hazia)
6. **URUMEA FERRETERIA**: Laban joku bat egurrezko oinarriarekin
7. **PORTALONDO**: Eskritorioko jokua eta agenda

8. **NEKANE ESTETIKA**: Rosa Bulgaria gorputz tratamendua
9. **IBAI MENDI**: Trango motxila bat
10. **AMEGAR**: Fagor CR18 kafetera
11. **LEOKADISTI LIBURUDENDA**: 2 LIBURU (bat erderaz, bat euskaraz)
12. **EZKATI ILEAPAINDEGIA**: ile kortea eta tintea
13. **DORRONSORO**: Hilabetean eguneko ogi bat.
14. **IRIGOEN ZAPATADENDA**: etxeko zapatilak
15. **JAIONE KONJELATUAK**: Iberiko lotea

Antziola okindegian saldua

SASKI BEREZIAREN ZENBAKI IRABAZLEA 1.114

Irigoen zapata dendan saldua

HERNANI BIDAIAK:

Hotel Villa de Laguardiara eskapada bi lagunentzat.

- Gau bat + ongi etorriko afaria.
- Villa Lucia ardoaren zentro tematikora bixita.
- Bodegaren bixita eta ardo dasketa.
- Wine oil spa zirkuitua.



Hernanik
kronika

